



Herritar estimatu hori:

Lehenbiziko aldiz, Lasarte-Oriako Udalak partaidetza-prozesu bat egingo du 2017ko udaleko aurrekontuak lantzeko, eta zuk ere parte hartzea nahi dugu.

Aurten 500.000 euroko kontu-sail bat erre-serbatu dugu, gure udalerrian beharrezkoak diren inbertsioak gauzatzeko. Honekin batera bidaltzen dizugun orrian, Udaletik garrantzizkotzat jotzen ditugun inbertsioen lau proposamen egiten dizkizugu, eta horiez gain zerorrek hautatutakoren bat proposatzeko aukera ere ematen dizugu. Jarraitu beharreko prozedura oso erraza da: eman 1etik 5era puntu horietako bakoitzari, 5a zure iritziz garrantzi gehien duena izanik eta 1a gutxien duena. Behin orri hori betetakoan, udalaren zenbait eraikinetan parte hartzeko jarrita dauden postontzietan utzi ahalko duzu (udaletxe zaharrean, kiroldegi munizipalean, kulturtxean eta osasun-zentroan) otsailaren 8a baino lehen.

Herritarren boto-kopuru gehien jasotzen duen proposamena udalaren 2017ko aurrekontuetan sartuko da, aurrera eramateko.

Parte-hartzaile guztiak adin nagusikoak eta gure herriko bizilagunak direla egiaztatu ahal izateko, zeure izen-deiturak eta DNIaren zenbakia ere jarri beharko dituzu parte hartzeko orrian.

Espero dut esperientzia berri honetan parte hartzera animatuko zarela, guztion artean administrazio irekiago bat lortzeko.

Agur bero bat.

Estimado/a vecino/a:

Por primera vez el Ayuntamiento de Lasarte-Oria va a realizar un proceso participativo para la elaboración de los presupuestos municipales de 2017 y queremos contar contigo.

Este año hemos reservado una partida económica de 500.000 euros para la ejecución de inversiones necesarias en nuestro municipio. En la hoja que te adjuntamos, te proponemos cuatro propuestas de inversión que desde el Ayuntamiento consideramos importantes más la opción de que tú nos puedas aportar alguna más de tu libre elección. El procedimiento a seguir es muy sencillo: puntúa del 1 al 5 cada una de ellas siendo el 5 la más importante según tu criterio y el 1 la que menos. Una vez que hayas rellenado la hoja adjunta la podrás depositar en los buzones de participación que están situados en diferentes edificios municipales (Ayuntamiento viejo, Polideportivo Municipal, Casa de Cultura y Ambulatorio) antes del 8 de febrero.

Aquella propuesta que tenga mayor número de votos de la ciudadanía será incluida en los presupuestos municipales del 2017 para su ejecución.

Para poder comprobar que todas las personas participantes son mayores de edad y residentes en nuestra localidad, deberás añadir también tu nombre y apellidos así como el número de DNI en la hoja de participación.

Espero que te animes a participar en esta nueva experiencia para lograr entre todos y todas una administración más abierta.

Un saludo.

Lasarte-Orian, 2017ko urtarrilaren 9an,

Lasarte-Oriako alkateak Alcalde de Lasarte-Oria



Jesus Zaballos de Llanos

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2017

PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS 2017

Balora itzazu 1etik 5era inbertsiorako proposamen hauek, 5a zure iritziz garrantzi gehien duena izanik eta 1a gutxien duena. Bosgarren proposamena zerorren aukerakoa da, eta horretarako dagoen tartean idatzi behar duzu.

Valora del 1 al 5 las siguientes propuestas de inversión siendo el 5 según tu criterio la de mayor importancia y el 1 la de menor. La quinta propuesta es a tu libre elección, siendo necesario que la escribas en el espacio reservado para ello.

KARMENGO KAPERA ZAHARBERRITZEA REHABILITACIÓN CAPILLA DEL CARMEN



**FATXADAN DITUEN HEZETASUN-ARAZOAK
KONPONTZEA ETA PINTATZEA**
SOLUCIONAR LOS PROBLEMAS DE HUMEDADES
EN SU FACHADA Y PINTARLA

1 2 3 4 5

(Aukeratzeko, marraztu zirkulu bat zenbakian)
(Selecciona dibujando un círculo en el número)

SASOETAKO BIDEGORRIA BIDEGORRI DE SASOETA



**HERRIKO BIDEGORRIEN SAREA EUSKOTRENEK ETA
PLAZAOLAKO TRENBIDEAREN ARTEAN LOTZEA**
CONECTAR LA RED DE BIDEGORRI LOCAL ENTRE
EL EUSKOTREN Y LA VÍA DEL PLAZAOLA

1 2 3 4 5

(Aukeratzeko, marraztu zirkulu bat zenbakian)
(Selecciona dibujando un círculo en el número)

UISTIN KALEA BERRURBANIZATZEA REURBANIZACIÓN UISTIN KALEA



**ESPALOIAREN ZABALERA GUTXITZEA
APARKALEKUEN KOPURUA GEHITZECO,
LERROAN EGOTETIK ZEHARKA EGOTERA PASATUZ**
REDUCIR EL ANCHO DE LA ACERA PARA
INCREMENTAR EL NÚMERO DE APARCAMIENTOS
PASANDO DE ESTAR EN LÍNEA A BATERÍA

1 2 3 4 5

(Aukeratzeko, marraztu zirkulu bat zenbakian)
(Selecciona dibujando un círculo en el número)

ESPazio PUBLIKOKO ESTALPEA CUBIERTA DE ESPACIO PÚBLICO



**PLAZA PUBLIKOREN BATEAN EREMU BAT
ESTALPETZEA. PROPOSATU KOKALEKUA:**
CUBRIR UN ESPACIO DE ALGUNA PLAZA PÚBLICA.
PROPON UBICACION:

1 2 3 4 5

(Aukeratzeko, marraztu zirkulu bat zenbakian)
(Selecciona dibujando un círculo en el número)

ZURE PROPOSAMENA TU PROPUESTA



HEMEN PROPOSA EZAZU PROPÓN AQUÍ:

1 2 3 4 5

(Aukeratzeko, marraztu zirkulu bat zenbakian)
(Selecciona dibujando un círculo en el número)

**ZURE PROPOSAMENA KONTUAN HARTUA
IZANGO BADA, ZEURE IZEN-DEITUREKIN ETA
DNIAREN ZENBAKIAREKIN BETE BEHAR DUZU**
PARA QUE TU PROPUESTA SEA TENIDA EN
CUENTA DEBES RELLENARLA CON TU NOMBRE,
APELLIDOS Y NÚMERO DE DNI

Izena eta deiturak Nombre y apellidos:

NAN DNI: _____

ESKERRIK ASKO PARTE HARTZEAGATIK!
¡MUCHAS GRACIAS POR COLABORAR!